



## KANPAINA EGITEN

### *Jarduera honen bidez lan ditzakegun edukia:*

**Arloa: Gizarte-zientziak.** 1. blokea: Eduki komunak; 2. blokea: Gure mundua; 3. blokea: Gizartean bizi.

**Arloa: Hizkuntza eta literatura.** 1. blokea: Ahozko komunikazioa: hitz egin eta entzun; 2. blokea: Idatzizko komunikazioa: irakurri; 3. blokea: Idatzizko komunikazioa: idatzi.

**Arloa: Matematika.** 5. blokea: Estatistikak eta probabilitatea.

**Arloa: Hezkuntza plastikoa.** 1. blokea: Ikus-entzunezko hezkuntza.

**Arloa: Gizartearen eta herritarren balioak.** 2. blokea: Ulermena eta errespetua gizakion arteko harremanetan; 3. blokea: Elkarbizitza eta gizarte-balioak.

### *Behariko dugun materiala:*

Infografia: **“Kontsumitzen dudanak zerikusia al du gosearekin?”** Eranskineko lanerako orriak.


### *Hezitzailearentzako oharra:*

- Presta ezazu beharrezko azpiegitura, “Kontsumitzen dudanak zerikusia al du gosearekin?” infografia animatua proiektatzeko.
- Aurrez «Hozkailuko janariak botatzen» jarduera egitea komeni da.
- Ohar garrantzitsua: jarduera honen bigarren fasean («Zabaltzea»), beharrezkoa izan daiteke telefono mugikorrek erabiltzea; horretarako, dagozkion baimenak eskuratu beharko dituzu.

### *Garapena:*

#### *1. fasea: Sortzea*

- Proiektatu infografia. Beharrezkoa denean, gelditu eta zalantzak argitu, denek uler dezaten ondo haren edukia.
- Jarri neska-mutilak taldeka, eta azaldu zer egin behar duten: «“Hozkailuko janariak botatzen” jardueran eta infografian ikusi duzuen bezala, janari asko botatzen dugu zaborretara. Hori ekiditeko, presta ezazue dekalogo bat; hau da, zehaztu hamar ekintza, hainbeste janari ez botatzeko eta haragi gutxiago jateko. Talde bakoitzak bere dekalogoia prestatuko du. Nahi duzuen bezala egin (kartel batean, irudi digitaletan, bideoan, audioan...), baina sormena landu».



- Eman lanerako orriak eta utzi taldeei beren dekalogoia prestatzen.
- Bukatutakoan, talde bakoitzak bere lana erakuts dezala, eta hausnartu haien edukiaz. Kontuan hartu dekalogo bakoitzaren originaltasuna eta sormena.

## 2. fasea: Zabaltzea

- Denen artean, egin dezatela **Sare sozialetan zabaltzeko kanpaina** bat, haien mezua ahalik eta jende gehienarengana irits dadin. Horretarako, erabaki dezatela zein sare erabiliko dituzten (Whatsapp, Snapchat, Instagram...), zein izango diren eraginkorrenak, zein formatu izango den egokiena, eta abar.
- Ohar garrantzitsua: kanpaina bukatutakoan, egin dezatela kanpainak izan duen eraginaren gaineko ebaluazioa: zenbateko erantzuna izan duen, zenbat jarraitzaile lortu dituen, iruzkinak, atsegin dut, zenbatek partekatu zituzten argitalpenak, elkarrekintzak, eta abar.

## Eranskina:

### Laneraġo orria

<b>Zein ekintza proposa ditzakezue?</b>	<b>Dekalogo</b> bat egin behar duzue. Dekalogo horretan, ekintza zehatz batzuk jaso behar dituzue, janariak ez botatzeko eta hainbeste haragi ez jateko. Erraz egiteko moduko ekintzak izan daitezela, pertsonen ohiturak aldatzen laguntzeko. Pentsa ezazue zuengan eta zuen ingurukoengan.
<b>Bi gai hauen inguruan hausnartu behar duzue dekalogo prestatzeko.</b>	<b>Gure dieta mota:</b> infografian ikusi duzuen bezala, jaten dugunak ondorio handiak izaten ditu ingurumenean; batez ere, hainbeste haragi jateak. Eta, gainera, gose direnei zailtasunak jartzen dizkiegu elikagaiak lortzeko. <b>Janariak botatzea:</b> puntu hau funtsezkoa da, zeren eta kontsumitzaileok janari asko eta asko botatzen dugu zaborretara. Garrantzitsua da jakitea gure inguruan zehazki zergatik botatzen dituzten elikagaiak, eta arazo horri aurre egiteko ekintza batzuk proposatzea.